

PERTSONAK ZARATATIK ETA BIBRAZIOETATIK BABESTEKO UDAL ORDENANTZA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Ordenantza honen bitartez, energia akustikoaren bi seinalerik adierazgarrienek –zarata eta bibrazioek– ingurugiroan barreiatzean sortzen dituzten arazoei aurre egiteko eta pertsonak horietatik babesteko udal iharduera arautuko da.

2. Artikulua

1. Ordenantza hau Zarauzko udalerri guztian ezarriko da.

2. Ordenantzak arautzen duen esparruaren barruan, pertsonentzat gogaikarri izan litezkeen zarata eta bibrazioak sortzen dituzten instalazio, iharduera, ekintza eta jokaera guztiak sartzen dira. Halaber, eraikinetako eraikuntza-osagaiak ere horren barruan sartzen dira, zarata eta bibrazioak zabaltzen lagundu edo galarazi dezaketen neurrian.

3. Ordenantza honetan adierazitako aginduak, udal lizentzia edo baimena eman zaien iharduera, instalazio eta obra guztietan derrigorrez bete beharko dira baimen hori indarrean jarri ondoren. Dagoeneko baimena izan edo lehendik baimenduta daudenei dagokienez, xedapen iragankorretan adierazitakoaren arabera zehaztuko da haiek nola egokitu Ordenantzan ezarritako arauetara.

4. Hiri-planteamenduko lanak eta era guztietako iharduera eta zerbitzuak antolatzerakoan, Udalak gerta litezkeen zarata eta bibrazioen maila zenbaiterainokoa den izan beharko du kontuan, eta hartutako irtenbide eta/edo plangintza-erabakiek bizi-kalitaterik handiena eta inguruarekiko begirunerik zorrotzena lortu beharko dute.

II. TITULUA

ZARATA ETA BIBRAZIOEN IGORTZE ETA HARTZE MAILAK

3. Artikulua

1. Ordenantza honen ondorioetarako, zarata eta bibrazioen igortze maila, soinu-iturri batek sortutako presio akustikoaren maila da. Igortze maila hori barnealdekoa edo kanpoaldekoa izan daiteke, eraikin edo lokal baten barruan sortzen den, edo kanpoaldean sortzen den kontuan izanik.
2. Zarata eta bibrazioen hartze maila, berriz, beste leku batean dagoen soinu-iturri baten eraginez leku jakin batek duen edo bertan dagoen presio akustikoaren maila da. Halaber, barnealdeko edo kanpoaldeko hartze mailak ere bereizten dira, neurketa lokal baten barruan edo kanpoaldeko eremu batean, non egiten den kontuan izanik.

4. Artikulua

1. Zarata maila neurtzeko dezibelioak erabiliko dira, eta (A) motako erreferentzia-kurbaren bidez normalizaturiko ponderazio-sarearen arabera zuzenduko dira.
2. Soinu-iturri batek leku jakin batean sortarazitako hotsak ezingo du eragin, beste leku batean, Ordenantza honetako 1. eta 3. eranskinetan adierazitako hartze mailaz goragoko zaratarik. Debeku horretatik kanpo gelditzen dira eraikuntza lanek sortutako zaratak, bide publikoan egiten diren lan eta ihardueretakoak eta kultura edo aisialdi arloko jaialdi eta izaera bereziko ekitaldi ofizialetakoak, horiek guztiak berariaz arautuko baitira.

5. Artikulua

1. Eraikuntzen bibrazioen neurketa, egitura-azalaren Z koordenadan egiaztatu beharko da, horixe baita gizakiaren iharduera eta atsedena gehiena galarazten duen ardatza. Bibrazioak neurtzeko sistemari dagokionez, ISO 2631-89 arauan, 1etik 3ra bitarteko ataletan adierazitakoa ezarriko da.
2. Eraikinetan dagoen bibrazio mailaren parametroa adierazteko, M/S2ko azelerazio bertikalaren balio eraginkorra erabiliko da, 1etik 8ra bitarteko Hz-eko frekuentzian neurturik.
3. Azelerazio bertikalaren balio eraginkorrari zuzenean loturik, eta dagoen bibrazio mailaren adierazgarri gisa, LA parametro logaritmikoa ere erabiliko da, ondoren azaltzen den eran:

$$LA = 20 \text{ Log } A/AO$$

A= Azelerazioaren balio eraginkorra M/S²tan
AO = Erreferentzia balioa M/S²tan berdin 1×10^{-6} .

4. Azelerometroa zoru, sabai edo solairuetako alderdi sendoetan jarriko da, bibrazioak hartzen dituen onibarreko gelen erdian.
5. Tresna mekanikoek ezin izango dute Ordenantza honetako 2. eranskinean adierazitakoa baino bibrazio maila handiagorik sortu. Maila hori gaindituz gero, beharrezko zuzenketa neurriak hartu eta bankada bereziak jarriko dira eraikinaren egituraren eta lokalaren zoruan, eta baita zorro elastikoak, muntaia flotatzaileak eta bibrazioen aurkako bestelako gailuak ere, bibrazioak sortzen dituzten elemento guztietan.

III. TITULUA

IHARDUERAK BIDE PUBLIKOAN

6. Artikulua

1. Aldi baterako lan bereziak, esaterako eraikuntza-lan publiko nahiz pribatuak, ezingo dira jaiegunetan egin, ez eta lanegunetan ere 21:00etatik 8:00ak bitartean. Lanegunaren gainerakoan, berriz, erabilitako ekipo eta lanabesek ezingo dute, bost metroko distantziara, Ordenantza honetako eranskinean adierazitakoa baino zarata maila handiagorik sortu, eta horri begira beharrezko zuzenketa neurriak hartuko dira.
2. Eranskinetan baimendutakoa baino zarata maila handiagoa aterez gau-ordutan lan egiteko debeku horretatik kanpo geratzen dira premia edo arrisku arrazoiengatik egin beharreko obrak, edota beren ezaugarri bereziengatik egunez egiterik ez dauden gainerakoak. Gauezko lanak eta obrak berariaz baimendu beharko ditu Udal Administrazioak, eta baimen horretan zarata eta bibrazio maila onargarriak adieraziko dira.

7. Artikulua

Debekatua dago bide publikoan salgaiak kargatzen eta deskartzen ibiltzea 22:00etatik 07:30era bitartean, Udal Administrazioak horretarako bereziki baimena eman ezean.

8. Artikulua

1. Debekatua dago, oro har, bide publikoan irrati eta telebistak, disko-jogailuak eta musika-tresnak piztu eta erabiltzea, publizitate-mezuak ematea edota zarata eta bibrasioak sortzen dituen beste edozein iharduera burutzea.

2. Ez da horrelako mugapenik ezarriko ondorengo kasuetan: alarma egoeran, larrialdietan, usadiozko jai, ospakizun eta izaera bereziko ekitaldi ofizialetan, kultur ekitaldietan, edota interes publiko nahiz sozialagatik horretarako premia ikusten denean. Zehatzago esanda, kaleko ikuskizunetarako baimena, jolas-ihardueretarakoa, aldi baterako instalazio edo egitura mugikor edo desmuntagarriak dituzten ikuskizun eta saltokietarako baimena, eta bide publikoa mahai eta aulkiekin bete eta erabiltzeko baimena, dagokien Ordenantza berezietan arautuko dira.

IV. TITULUA

MAKINERIA ETA INSTALAZIO OSAGARRIETARAKO BALDINTZA ESKAGARRIAK

9. Artikulua

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik hasita, ez da onartuko, ondoko edo hurbileko eraikinetan, eranskinak adierazitakoa baino maila edo bibrasio handiagorik sortzen duen makineria edo instalazio osagarririk.

10. Artikulua

1. Inolako ihardueratan ezingo da jarri, hormen, solairuen edo beste egitura-osagaien gainean, zaratak eta bibrasioak moteltzeko eta zuzentzeko beharrezko osagaien horniturik ez dagoen makina edo motorerik, etxebizitzak edo lokalak zarata sortzen den lekutik urruti samar egon eta Ordenantza honetako eranskinetan adierazitako presio akustikoaren mailak gainditzen ez direnean izan ezik.

2. Aurreko parrafoan aipaturiko osagaiak egiturazko solairuetan jartzeko lana beharrezko kalkuluen bidez justifikatuko da; kalkulu horiek, iharduera-baimena eskuratzeko espedientean Udal Administrazioari derrigorrez aurkeztu beharrezko instalazio-proiektuekin batera aurkeztuko dira.

11. Artikulua

Jasogailuak, aire-egokitzeko instalazioak eta beren hozketa-dorreak, uren banaketa eta ustuketa, energia elektrikoaren eraldaketa eta eraikinetako gainerako zerbitzuak behar bezala kokaturik eta isolaturik jarriko dira, hurbileneko etxebizitzetako presio akustikoaren hartze maila Ordenantza honetako eranskinetan ezarritako gehienezko maila baino handiago izango ez dela bermatzeko.

12. Artikulua

1. Fluidoak erregimen behartuan daramatzen tutuek bibrazioen aurkako gailuak izango dituzte, eta akustikoki isolaturik egongo dira, haien barnean doazen fluidoek sortutako soinu-igorpena galarazteko.

2. Fluidoak mugiarazteko ekipoen konexioa —eroanbide eta tutuetarako aireztapen, klimatizazio eta aire konprimituaren instalazioa adibidez— hartune edo gailu elastikoen bidez egingo da. Aurreneko tutu-tarteak eta eroanbidea, eta behar izanez gero sare osoa, elementu elastikoen bidez bermatuko dira, eraikineko egituran zehar zarata eta bibraziorik zabaldu ez dadin.

3. Hormak igarotzen badituzte, tutuak eta eroanbideak hormari itsatsi gabe ezarriko dira, behar bezalako eraginkortasuna izango duten osagai elastikoen bidez, eroanbideek elkar ez ukitzeko adinako tartea utziko duten horma-igarotzaileak erabiliz.

V. TITULUA

ERAIKUNTZARAKO BALDINTZA ESKAGARRIAK

13. Artikulua

Zarata eta bibrazioen igorpenaren ondorioz nekagarritzat jo litezkeen eta INOKAaren arabera baimena behar duten ihardueren barruan insonorizazioa lortzeko eta bibrazioak moteltzeko jarritako eraikuntza-osagaiak beharrezko isolamendu maila izan beharko dute; hartara, Ordenantza honetako eranskinetan zehaztutakoa baino handiagoak diren soinu presio edo bibrazio igorpenak beste lokal edo gela batzuen kanpoalde edo barrenalderaino iristea galaraziko da; halaber, eta beharrezko izanez gero, eragindako aireztapen sistema bat ere izango dute, edozein hutsarte edo leiho erabat itxi ahal izateko.

14. Artikulua

1. Etxebizitzak dituzten eraikinei dagokienez, horietan dauden eta aurreko artikuluan adierazitako ihardueretarako erabiliko diren lokaletan honako baldintza hauek eskatuko dira:

a) Zarata-iturri gisa jo litekeen instalazioa edo iharduera daukan lokalaren eta aldameneko lokal edo etxebizitzaren artean jarritako eraikuntza-osagaiak, insonorizaziorako behar bezala egokiturik, gutxienez 50 dB(A) eta 65 dB (A)-ko isolamendu gordina bermatu beharko dute hurrenez hurren, kontuan izanik betiere iharduerak egunez bakarrik irekitzeko baimena daukan –08:00etatik 22:00etara bitartean- ala gaueko ordutegian ere jarduteko aukera daukan, – 22:00etatik 08:00etara bitartean-.

b) Aldamenean beste eraikuntzarik ez duten lokal horietako eraikuntza-osagaiak, hala nola fatxadek, hormek eta argi-patioen itxierak, airetiko zaratatik gutxienez 35 dB(A)ko isolamendua ziurtatu beharko dute, zarataren sorgunea funtzionamenduan ari den orduetan.

c) Isolamenduaren balioak zarata egiten duten lokaletako aireztapen zulo eta mekanismoei ere dagozkie, bai neguan bai udan.

2. Isolamendua adierazitako gutxieneko neurriraino egokitu behar duen subjektu pasiboa zarata-sorguneko titularra izango da.

3. Aurreko 1. puntuko a) atalari dagokionez, zarata sortzen den tokia elemento puntual bat denean, isolamendu akustikoa toki horretara mugatu ahal izango da, baina dagokion eranskinean eskaturiko neurriak betetzen badira betiere.

15. Artikulua.

Ordenantza honetan adierazitako gainerako mugapenak mugapen, bilera, ikuskizun edo musika entzunaldietarako prestatuturiko tokietan ezingo da 90 dB(A)tik gorako zarata mailarik gainditu bezeroen erabilerarako diren tokietan, non eta toki horretarako sarreran edo sarreretan ohar bat jartzen ez den, neurriz eta argitasunez ongi ikusteko modukoa, honako ohartarazpen honekin:

“Lokal honen barruan luzaro egoteak kalte iraunkorrak sor diezazkizuke entzumenean”.

16. Artikulua.

1. Zarata dela-eta gogaikarri gerta litezkeen iharduera guztietan ate-leihoek itxita egon beharko dute gaueko ordutegian. Kasu horretan, jendearentzako sarrerak ateondo estanko bat izango du, behar adinako absorzio akustikoa eta ate bikoitza izango duena. Ahal dela, ateak plano oktogonaletan ezarriko dira. Nolanahi ere, eta ate bat irekita dagoen bitartean bestea itxita egongo dela ziurtatzeko, euspen-malguki bat jarriko zaie, eta ondorengo grafikoetan adierazten diren gutxieneko neurriak errespetatuko dira.
2. Ate-leihoak itxita edukitzeko eginbehar hori, ihardueraren eguneko funtzionamenduan ere bete beharrekoa izango da, baldin eta, egoitzetarako hiri-lurzoruan kokaturiko iharduerak badira eta egunean zehar, ate irekita eta beraren aurrean metro batera neurketa eginik, 60 dB(A)k gainditzen badituzte.

VI. TITULUA

IREKIERA ETA IHARDUERA BAIMENAK EMATEKO BALDINTZAK

17. Artikulua

Zaratak eta bibrazioak direla-eta gogaikarri gerta litezkeen ihardueren titularrek beren soinu-iturrien insonorizazioa eta lokal eta instalazioen isolamendu akustikoa lortzeko neurriak hartu behar dituzte derrigorrez, kasu bakoitzean ezarritako aginduei jarraituz.

18. Artikulua

1. Iharduera Nekagarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiaren mende dagoen eta zarata eta bibrazioak sortzeagatik nekagarritzat jo litekeen iharduera bat jartzeko baimen eskaerekin batera azalpen-idazki bat ere aurkeztuko da, eta horretan, soinu-iturri guztiek sortutako zarata eta bibrazioen igorpenek eta transmisioek Ordenantza honen aginduak bete ditzaten aurrikusitako neurriak adieraziko dira.
2. Kasu bakoitzean legearen arabera eskatuko den dokumentazioarekin batera, eskumena duen teknikari tituludunak egindako eta dagokion Kolegio Ofizialak ikusi-onetsitako isolamendu akustikorako proiektua aurkeztu beharko da, indarreango legeriari egokitzen dela justifikatuz. Proiektu horretan isolamendu akustikoaren azalpena egingo da, kalkuluak zehaztuz, eta horri begira, zortzirenen banda-metodoa eta zarata hartzen duen edo duten gelen erreberberazio-denboraren neurketa, erabili beharreko materialak eta haien joera akustikoa, etab. erabiliko dira.

3. Burututako isolamendu akustikoa, ISO 140 (IV) arauaren parekoA den UNE-74-040-84 arauaren 4. zatian adierazitako metodoari jarraiki egiaztatuko da. Instalazioak gehien eragindako etxebizitzaren gainean egingo da isolamenduaren neurketa. Egiaztapena egin ondoren isolamenduaren egiaztagiria egingo da, eskumena duen teknikari tituludunak sinatu eta dagokion Kolegio Profesionalak ikus-onetsiko duela, eta bertan, besteak beste, ondorengo parametroak adieraziko dira:

* Isolamendua zortzireneko herenen bandetan.

* Isolamendu orokorra.

* Erabilitako aingurapen sistema eta igorpen mailak, soinu arrosaz, ekipoa ainguratu ondoren. Eraginik handiena duen etxebizitzan inongo frekuentzian 20 dB(A)ko maila ez gainditzea bermatu beharko du aingurapenak.

* Jarritako musika-ekipoaren deskribapena, zarata sortzen duten guneak (kokalekua, marka, modeloa, ezaugarriak, etab.)

* Jarritako makinariaren deskribapena.

* Ekipoaren kalibrazio-dataren ziurtagiria.

4. Neurketak 1 motako ekipo batez egingo dira, UNE aruari jarraituz; teknikari eskudunak egingo du neurketa, eta kolegio ofizialak ikus-onetsiko du. Gainera, ondorengo aurrikuspenak hartu beharko dira kontuan:

* Neurketa ohiko musika-ekipoarekin egingo da (anplifikadoreak, ekualizadoreak, etapak, bozgoragailuak, etab.) eta makineria guztia funtzionamenduan dagoela, akustika aldetik maila gorenean jarrita.

* Lehenago adierazitako pieza horietako bat aldatzean zarata-igorpenen maila ere alda litekeenez, eta hala ere lokalaren isolamendu ahalmena bere horretan geldituko litzatekeela kontuan izanik, neurketa-txostenean, zer ekipo jarri diren, non kokatuak dauden eta neurketa nola egin zen adieraziko da.

5. Udalak isolamendu akustikoa aztertu ondoren aurkako txosten teknikoa egiten badu, baina horretan hutsune larririk ikusi gabe ordea, behin-behineko baimena eman ahal izango du, sei hilabeteko epe luzaezin baterako.

VII. TITULUA

ERREGISTRO SONOGRAFIKOAREN SISTEMA

19. Artikulua

1. Lokalaren barruan 75 dB (A)ko gehieneko igorpen maila izanik, maila bereko soinu-aingurapenez hornituriko irrati, telebista edo hari musikala bakarrik duten lokaletan izan ezik, arratseko 20:00 baino beranduago ixteko baimena duten ihardueretan erregistro sonografikoaren sistema jarri beharko da derrigorrez bertako musika jogailuetan. Horri esker, gerora, hamabost eguneko epean gutxienez, ihardueraren funtzionamenduari buruzko datuak lortu ahal izango dira. Sistema hori, erabilitako aingurapen sistemaren edo mugaketaren atal izan daiteke.

2. Sistemak gutxienez ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

* Ihardueraren funtzionamenduan zarataldia erregistratu eta biltzea, data, hasiera eta amaierako ordua, gehieneko zarataldiaren minutu baten pareko maila, eta hura zer ordutan gertatu den, eta azkenik, probaldiaren batezbesteko maila baliokideak.

* Soinu-iturrien funtzionamendu aldiak erregistratu eta biltzea, haiek pizten eta itzaltzen direneko data eta ordua adieraziz, eta soinu-erreproduktzioarako sistema energetikoaren errendimendua azalduz, behar bezala dabiltzala egiaztatzeko.

* Aurreko ataletan lortutako informazioa gutxienez 15 egunetan gorde, gerora ikuskapena egin ahal izateko.

* Udal zerbitzu teknikoek edo eskuordeturiko entitateak horiek eskuratu ahal izateko sistema bat xedatzea; hartara, ikuskaritza zerbitzuko informatika-gunera eramane eta bertan aztertu eta ebaluatu ahal izango dira, inprimatzeko aukera ere izango delarik. Datu hartze horrek ez du suntsitzailea izan behar, eta ez du datuen manipulazioa ahalbidetu behar.

* Azkenik, sistema horrek beharrezko babesgailuak izan beharko ditu "setup"aren manipulazioa galarazteko, eta hori egiterakoan giltza elektronikoak edo sarrera-gakoak erabiliko dira.

3. Udalak, adierazitako sistema sonografikoa jartzea eska diezaioke edozein iharduerari, baldin eta, haren ezaugarriak direla-eta, baimendutakoa baino zarata maila handiagoa izan dezakeela uste badu.

VIII. TITULUA

ESTABLEZIMENDU PUBLIKOKO ERABILERA DUTEN IHARDUERENTZAKO ARAU BEREZIAK. BAIMENEI UKO EGITEA ONDORIO GEHIGARRIAK DIRELA ETA

20. Artikulua

1. Establezimendu publikoko erabilera duten ihardueren pilaketak, bereziki egoitzetarako hiri aldeetan kokatu daitezkeen taberna, kafetegi, pub, diskoteka eta antzekoek, presio akustikozko maila orokorrak sortzen dituzte, onargarritasun mailaz gorako zarata eta bibrazioak eraginez, eta hori, establezimendu bakoitzean beharrezko neurri zuzentzaileak hartu arren. Establezimendu horiek erabili eta aldameneko kale eta plazetan biltzen diren pertsonen ihardueraragatik beragatik gertatu ohi da hori; horrela bada, eremu edo kale jakin bateko auzolagun eta egoiliarrentzat ondorio metagarri kaltegarriak gertatzen dira, pertsona horien atsedena galaraziz eta osasuna eta intimitatea kaltetuz.

2. Ondorio gehigarri horiek galarazteko eta beroriei aurrea hartzeko asmoz, Udalak ez du baimenik emango, egoitzetarako aldeetan, Ikuskizun Publiko eta Jolas Iharduerei buruzko 4/1995 Legeko katalogo erantsiaren III.2 atalean (ostalaritza lokalak eta instalazioak) sartuta dauden establezimenduak jartzeko, ez eta diskotekak, dantza-aretoak eta horrelakoak jartzeko ere, baldin eta area berean eta instalazio berrirako proposaturiko kokalekuaren inguruan honako zirkunstantziak ematen badira:

2.1. Baimena eskatzeko unean, iharduera berrirako proposaturako kokalekutik ehun metro baino gutxiagora iharduera mota horretako lau kokal edo gehiago badaude.

2.2. Iharduera berrirako proposaturiko kokalekutik ehun metro baino gutxiagora era horretako iharduerak dituzten beste bi lokal gutxienez egon, eta gaueko ordutegian establezimendu horiek lanean ari diren bitartean, eta aste bukaerak eta behaketa denbora nahiko esanguratsuak erreferentziatzat harturik, establezimendu horien inguruan pertsonen pilaketak sortutako zaratak edo bibrazioek 1 eta 3 eranskinetan aurrikusitako hartze maila gainditzen dutela frogatzen bada.

2.3. Lokalen arteko distantzien neurketa ibilbide laburrenaz egingo da beti, elkarren hurbileneko fatxada-mugak batuz. Lokal horiek beste kale edo plaza batean baldin badaude, edo kale berean, baino beste fatxada-lerro batean, kontuan hartu beharreko distantzia honako hau izango da: lokal bateko fatxada-mugatik abiatu, perperdinkularki kale edo plazako ardatzeraino doan eta, ardatz honi eta aldameneko kaleetakoiei jarraituz, biderik laburrenetik beste lokaleko fatxadaraino doan lerroa; horretarako, azken lokal horren fatxada-mugatik kale edo plazako ardatzerainoko marra egingo da.

3. Baldin eta, eskatzaile batek lokal baterako baimena eskatu eta, artikulua honetan aurrikusitako zirkunstantziengatik, eskaera lehenago egin duen beste norbaitekin baterazintasunik gertatzen bada, uko egingo zaio haren eskaerari, eta honen eskaeraren izapidetzari jarraituko zaio.

4. Baimena duten iharduera guztiak ostalaritzako beste iharduera batera aldatu ahal izango dira, ordutegi berean edota gauzez eraginik txikiena dagoen orduetan. Hala ere, aldaketa eskaera, beranduago itxi beharreko iharduera baterako egiten denean, eta ondorio gehigarriei aurrea hartzeko, artikulua honetan ezartzen diren aurrikuspenak betetzen dituenaren eskaera bakarrik onartuko da. Aurrikuspen horietan hartu behar diren kontuan establezimenduak zabaltzeko eskaerak egiten direnean.

5. Ondorengo iharduerak aurreko mugapenetatik kanpo geratuko dira:

- a) Jatetxeak, erretegiak, autozerbitzuak eta jatetxeak, barra-zerbitzu berezia ez badute.
- b) Txokolategi, txurrodenda, izozkitegi, dastaleku edo antzeko establezimenduak, baldin eta horietan edari alkoholdukin zerbitzatzen ez bada.
- c) Txokoak eta gastronomia elkarteak.

Artikulu berariaz indargabetua, GAUEKO ORDUTEGIAN DIHARDUTEN OSTALARITZAKO, AISIALDIKO ETA BESTELAKO ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN BIDEZ (GAO, 43 zk., 2011ko martxoaren 4koa).

IX. TITULUA

IKUSKARITZA, KONTROLA ETA PREBENTZIO NEURRIAK

21. Artikulua

1. Ordenantza honetan xedatutakoa betetzea bermatzen duen ikuskaritza eta kontrol lana, horretan eskumena duen udal zerbitzuaren bidez egingo da; halere, Udalak eginkizun horretarako ahalmena eman diezaike behar adina espezializazio teknikoa duten pertsona edo entitate laguntzaileei.

2. Ikuskapenak, udalaren beraren ekimenez edo alderdi batek, salaketa bidez eskaturik, egin ahal izango dira.

3. Ikuskizun antolatzaileek, eta iharduera, lokal edo instalazioetako jabe, titular eta arduradunek, ikuskapen eta kontrola egiteko kreditaturiko pertsoneei sarbidea eman behar diete edozein unetan, beti ere behar bezala eskatu bazaie, eta laguntzeko prest egon behar dute ikuskaritza burutu bitartean.

4. Ikuskapen bakoitzaren akta egingo da, eta horren kopia bat ihardueraren titularrari, haren ordezkariari edo establezimenduko enpleguari emango zaio, eta bestea salatzaileari, halakorik balego. Ikuskapena eginik, Ordenantza betetzen ez dutela ikusiko balitz, hasiera emango zaio espedienteari, eta horren arabera, atzemandako hutsuneak berehala betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartu, zuzenketa neurri egokiak ezarri, eta behar izanez gero, hasiera emango zaio zehapen espedienteari.

22. Artikulua

1. Ordenantza honetan arauturiko esparruari dagokion espedienteari hasiera emanik, Alkatetzak badaezpada, eta interesatuei entzun ondoren, zarata sortzen duten lokal eta instalazioak itxi eta zigilatzeke agindu ahal izango du, harik eta zuzenketa neurri egokiak hartu, edo ikuskapenean antzemandako akats tekniko edo administratiboak konpontzen diren arte. Halaber, agindutako neurrien eraginkortasuna bermatzeko helburuz, Alkatetzak, eragin akustiko asaldatzailea sortzen duen iharduerari dagozkion ondasunak behar adina denboraz konfiskatzeko agindu ahal izango du.

2. Aurreko artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, eta eskumena duen Udal Zerbitzuaren txostenak baldin badio, ihardueraren eragin akustikoak asaldadura edo eragozpen larriak sortzen dizkiela auzoei, Alkateak lehenago aipaturiko badaezpadako neurriak hartu ahal izango ditu, aldeztatik interesatuei entzun gabe.

3. Neurri horiek indarrean jarraituko dute, harik eta, horretarako bide eman duten arazoak konpondu, eta lokala eta instalazioen egoera behar bezala aztertutik, Udalak hura abian jartzea baimentzen duten arte.

23. Artikulua

1. Akatsen zuzenketari dagozkion prozeduren izapidetza amaiturik, eta hamar egunetako entzunaldi-izapidea bete ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du, ikusitako akatsak zuzentzeko beharrezko zuzenketa neurriak har daitezzen aginduz eta, hala badagokio, horiek burutzeko epea adieraziz. Salbuespenak salbuespen, burutzapen epe hori ezingo da sei hilabetetik gorakoa izan, ezta hamabost egunetik beherakoa ere.

2. Burutzapen epea zehazterakoan, kontuan hartu beharko da ze aukerak dauden adierazitako zuzenketak egiteko, iharduerak nolako baldintzak dituen, eta baita hura gelditzeak nahiz jarraitzeak sor litzakeen arazoak. Epe hori amaitutakoan, berriz ere beste ikuskapen bat egingo da; horren emaitza aktan jasoko da, eta txosten bat egingo da; horretan zuzenketa neurriak burutu diren ala ez, eta horrela egin ez bada, zergatik ez den egin adieraziz. Horretan adierazitakoa arrazoizko jotzen bada, beste ebazpen bat bidera daiteke, eta lehenago adierazitako epea luzatu, baina hiru hilabetetik gora jo gabe.

24. Artikulua

1. Baimena eskuratu beharra duen lokal edo establezimendu batek horrelakorik ez duela ikusiko balitz, edo baimen horrek babesten ez dituen instalazioak baleuzka, Alkateak iharduera hori, edo arau-urratzea eragin duten osagaien funtzionamendua berehala geldiarazteko agindu dezake.

2. Obrak, karga eta deskarga eta bestelako lanak baimendutako ordutegietatik kanpo eta udal baimenik gabe egingo balira, iharduera horiek berehalaxe geldiarazteko aginduko da.

X. TITULUA

ZEHAPEN ERREGIMENA

25. Artikulua

1. Udalaren zehapen-ahalmena, azaroaren 26ko 30/92 Legeko IX. tituluan eta Ordenantza honetan xedatutakoari jarraituz arautuko da. Eusko Jaurlaritzak onartutako ikuskizun publiko eta jolas-iharduerei buruzko 4/95 Legearen esparruan sartzen diren lokal eta establezimenduei, Lege horretan zehapen-prozeduretarako aurrikusitako arauak ezarriko zaizkie, hala badagokie.

2. Udalaren barruan, zehapen-espeditentak ireki eta izapidatzeko eta dagokien zehapenak ezartzeko eskumena Alkatearen esku uzten da.

3. Ordenantza honetako aginduak ez betetzeagatiko arau-hauste administratiboak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

26. Artikulua.

1. Arau-hauste arina, Ordenantza honetan aurrikusitako gehienezko maila onargarria gainditzen duten zarata eta bibrazioen igorpena izango da, haien intentsitatearen arabera larritzat ere jo daitekeelarik. Halaber, arau-hauste arintzat joko da, berariaz larri edo oso larri gisa sailkatuta egon gabe, Ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez duen beste edozein arau-hauste.

2. Arau-hauste larriak honako hauek dira:

- a) Urtebeteko epean bi arau-hauste arin baino gehiago egitea.
- b) Ordenantza honetan aurrikusitako gehienezko zarata maila onargarriak gainditzen dituzten zarata eta bibrazioak sortaraztea, baldin eta, haien intentsitateagatik, osunarentzat arriskugarri edo kaltegarri badira, pertsonen entzumenean arazoak sortarazteko modukoak direlako.
- c) Ihardueraren funtzionamendurako baimena ematean eskatu diren insonorizazio eta isolamendu akustikoko instalazioak udal baimenik gabe aldatzea.
- d) Udalak, akatsak zuzentzeko helburuz, insonorizazio eta isolamendu akustikoari dagokionez agindutako zuzenketa neurriak justifikatu gabe ez betetzea.
- e) Ondorengo artikuluan aurrikusitako edozein arau-hauste, baldin eta, beren maila, izaera edo egokieragatik, larri kualifikatutzat hartu behar ez badira.
- f) Udalaren ebazpenez zigilaturiko edozein soinu-iturri baimenik gabe trukatu, manipulatu edo ordezkatzeari.
- g) Zarata eta bibrazioei buruzko arauak hausteagatik iharduera geldiarazi edo lokala ixteko ezarritako xedapenak ez betetzea.

3. Arau-hauste oso larritzat hartuko da urtebetean bi arau-hauste larri baino gehiago egitea.

27. Artikulua

1. Ordenantza honetako aginduen kontra egindako arau-hausteak, ondorengo apartatuan xedatutakoa izan ezik, eta lehentasunezko aplikazioa izango duen legeria sektorialean aurrikuspen berezirik egon ezean, honako era honetan zehatuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: ohartarazpena eta 5.000 .- pezeta bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larriak: 5.000.- pezeta bitarteko isuna, eta sei hilabete bitarteko baimena kentzea, zehapenak irauten duen bitartean iharduera itxita edo geldirik egongo delarik.

c) Arau-urratze oso larriak: gutxienez sei hilabete eta egun bat, eta gehienez bi urtez iharduera ixtea, zehapenak irauten duen bitartean iharduera itxita edo geldirik egongo delarik.

Eusko Jaurlaritzaren ikuskizun publiko eta jolas iharduerei buruzko 4/95 Legean tipifikaturiko arau-haustek, Lege horren esparruan sarturiko lokal, instalazio, ikuskizun eta iharduerei dagozkienak, honako era honetan zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak: ohartarazpena eta 200.000.- pezeta bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larriak, aldizkakoak edo metatuak: lokala ixtea edo iharduera geldiarazi edo debekatzea urtebete bitarteko denboran, eta 200.001 pezetatik 5.000.000ra bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte, ikuskizun publiko eta jolas iharduerei buruzko 4/95 Legean aurrikusitakoaren arabera.

28. Artikulua

1. Zehapenak zehazterakoan, arau-hauslearen erruduntasun maila eta arau-hauste administratiboa egiteko unean aringarri edo astungarri gertatu diren gainerako alderdiak ere hartuko dira kontuan, batez ere honako hauek:

a) Partikularrei sortutako kalteak eta horien izaera, eta arau-haustek gizartean izan duen eragina.

b) Nahita eta behin baino gehiagotan egina izan den.

c) Arau-haustearekin lortutako onura.

d) Arau-hausleak, espedientea amaitu aurretik, eskatu zaizkion konponketa-neurriak hartu izana.

2. Ordenantza honetan tipifikaturiko ekintza edo ez-egiteetan, doloz, erruz edo utzikieriaz jokatzeko duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira erantzule. Era berean, lokal eta ihardueren, edo dagozkien baimenen titularrak erantzule izango dira, bertako pertsonalak

edo beronen laguntzaileek, eta jendeak edo erabiltzaileek arau-hausteak egiten dituztenean, azken kasu horretan, arau-haustez ohartarazteko eginbeharra ez betetzeagatik.

3. Aurreko zehapenak, arau-haustearen ondorioen iraupena galarazteko hartu beharreko badaezpadako neurriekin bateragarriak izango dira. Neurri horien bidez, iharduera eta baimenak aldi baterako iraungi daitezke bete beharreko baldintzak betetzen ez direnean, eta iharduera, instalazio edo obrak geldiarazi ere bai, ondorio asaldagarriaren arrazoiek dirauten bitartean edo Udalak agindutako neurriak betetzen diren artean.

4. Instalazioetako ziguilak, konponketa eta doikuntza lanak egiaztatze bako ez dira kenduko. Hala ere, instalazioak ezingo du lanean hasi, harik eta udal ikuskaritzako pertsonalak obren adostasun-akta egin eta udal agintaritzak dagokion ebazpena ematen duen arte, instalazioa itxi edo zigilatze dekretoa indargabetezko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA

1. Ordenantzan honetan adierazitako, eta Ordenatzako I, II eta III. eranskinetan kanpoalde nahiz barnealdeko gehienezko zarata mailari buruz eta bibrazioei buruz adierazitako xedapenak, lanean ari diren iharduera guztie aplikatuko zaizkie Ordenantza hau indarrean jartzen den unean berean, baimena zein egunetan lortu duten kontuan izan gabe.

2. Ordenantzan eskaturiko baldintza teknikoetara egokitzea ere eskatuko da, ondorengo kasuetan:

- a) Establezimenduan higie, apainketa edo zainketa lan soiletatik harantzago doazen aldaketa, zabalkuntza edo eraberrikuntzak egin behar direnean.
- b) Baimenaren titulartasuna eskuz aldatzen denean.
- c) Arau-hauste larri edo oso larrien zehapen gisa itxitako establezimenduak berriro irekitzeko eskakizun gisa.

3. Ordenantza honetako 19.1 artikuluan aurrikusitako iharduerak burutzen dituzten establezimenduek ez dute, berez, sistema sonografikoa jartzeko obligaziorik, baina ordenantza indarrean jarri eta handik hiru hilabetera luzeenez, mugatzaile bat jarri beharko dute musika-ekipoan, zarata eta bibrazioen maila Ordenantza honetako eranskinetan aurrikusitako gehienezkoa baino handiagoa ez dela ziurtatzeko.

BIGARRENA

Ordenantza indarrean jarri aurretik obretarako baimena lortu duten eraikuntzek, baimen horretan legez ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA

Ordenantza hau behin-betiko onarturik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta handik hamabost lanegunera jarriko da indarrean. Indarrean jartzen den unean, indargabeturik geratuko dira maila bereko edo beheragokoak diren, haren xedapenekin bateraezinak diren edo haren aurka doazen gainerako xedapen guztiak.

BIGARRENA

Alkatetzak, Ordenantza hau behar bezala interpretatu eta aplikatzeko beharrezko agindu eta argibide guztiak emateko eskumena dauka.

HIRUGARRENA

Ordenantza honetako eranskinetan adierazten diren mailak besterik gabe egokituko dira Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko legeria orokorrak gai horretan xedatzen duenera, baldin eta horri esker, hiritarren babes maila eta bizi-kalitatea hobetzea badakar beti ere.

1. ERANSKINA

KANPOALDEKO ZARATA HARTZE MAILAK

Ondoren adierazten diren alderdietan, kanpoaldeko zarata hartze mailek ez dituzte ondorengo mugak gaindituko dB (A)tan:

<u>HIRI ALDE MOTA</u>	<u>EGUNA</u>	<u>GAUA</u>
Ekipamendu komunitario-sanitarioko aldea	45	35
Egoitza eta ekipamendu komunitario ez-sanitarioko aldea	55	45
Erabilera tertziario eta merkataritzako aldea	65	50
Industrialdea	70	55

8etatik 22etara bitarteko denboraldia izango da eguna, alde sanitarioetan izan ezik, horietan 8etatik 21etara bitartekoa izango baita. Gainerako orduak gaualdia osatuko dute.

2. ERANSKINA

BIBRAZIOAK

Eraikinak egiteko teknikan eta indar handiko gailu mekanikoen fabrikazioan lortutako aurrerapenek, ibilgailuen trafiko arinak, astunak, etab.ek bibrazio bidezko kutsadura sortzen du jendea bizi den eraikinetan.

Ez da onartuko jendea duten etxebizitzetan solairuan egunez 60tik gorako eta gauez 55tik gorako LA balioa sortzen duen iharduera, makina edo lantresnarik.

Industrialdeetan, LA balioek ez dute egunez 70 maila eta gauez 65 maila gaindituko.

Neurketa metodo gisa ISO 2631/1978 araua erabiliko da.

3. ERANSKINA

BARNEALDEKO ZARATA HARTZE MAILAK

Ondoren adierazten diren leku itxietan, barnealdeko zarata hartze mailek ez dituzte ondorengo mugak gaindituko dB (A)tan:

<u>ERAIKIN EDO LOKAL MOTA</u>	<u>EGUNA</u>	<u>GAUA</u>
Sanitarioa	28	25
Kultura eta Erlijio erabilerak	30	30
Hezkuntza	35	30
Bulegoak	40	--
Merkataritza	40	40
Jendea bizi den eraikinen barnealdea:		
Logelak eta egongelak	35	28
Osagai amankomunak (bebarrua, eskailera)	40	35
Komunak, pasiloak eta sukaldeak	40	30

Eguneko orduak eta gaueko orduak I. Eranskinean aurrikusitakoaren arabera bereiziko dira.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 1996ko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 1996ko abenduaren 30a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, behin-betiko izaeraz, 1997ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran onestu zela, eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1998ko otsailaren 16an (30 zk.) argitaratu zela.

Zarautzen, 1998ko otsailaren 18a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Udalbatzarrak, 2006ko irailaren 27ko osoko bilkuran, Ordenantza honen 7. artikulua berariaz indargabetzea erabaki zuela; eta erabakia Probintziako Aldizkari Ofizialean 2006ko urriaren 4an (189 zk.) argitaratu zela.

Zarautzen, 2006ko urriaren 18a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko ordenantza honen 20. artikulua 2011ko martxoaren 23an indargabetuta geratu dela, GAUEKO ORDUTEGIAN DIHARDUTEN OSTALARITZAKO, AISIALDIKO ETA BESTELAKO ESTABLEZIMENDUEN KOKALEKUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA indarrean sartu izanaren ondorioz (GAO, 43 zk., 2011ko martxoaren 4koa).

Zarautzen, 2011ko martxoaren 23a
Idazkaria